

# MANIFESTUA

## **BANKUEI DIRUTZAK, POBREI EZIN ESKASAGOAK LAGUNTZAK**

Amets egin genuen, krisiak gauzak bere lekuan ipiniko zituela: etikak erakutsiko zuela bidea, justiziak zuzenduko zituela harremanak, solidaritatea izango zela gure jokabidearen erdua, baztertuak berreskuratuko zutela lapurtu zitzaizen duintasuna.

Amets egin genuen, krisia eragin dutenek, beraiek, ordainduko zutela krisia. Baina usteak ustel. Begira gobernuek, diru-gosea ezin ase dauden bankuei dirua barra-barra nola luzatu dieten.

Amets egin genuen, desberdintasunak txikiagoak gertatuko ziren garaietan amets, bazterrera lagatako pertsonak hiritar agiria jasoko zutela eta guztientzat bizitza duina posible izango zela. Alderantziz ari da gertatzen: ahulenek gero eta zailagoa daukate irtenbidea, eskubide gutxiagoren jabe dira, lehen zituzten ahalbide murrizak desagertzen doaz, horientzat dira diru-gutxitze sozialak, eta bere sufrikarioa gero eta larriagoa da. Batzuek besteengandik banatzen gaituen amildegia gero eta handiagoa da. Krisiak, hazteko bide ez bada, hil egiten du.

Non daude krisiaren erantzukizuna dutenak?

Non daude tragedia honi bukaera emateko erantzule politikoak?

Bizi dugun errealitatea justiziaren guztiz kontrakoa iruditzen zaigu. Horregatik,

- **Arren eta arren eskatzen dugu** ongizate egoera eta kontsumo maila aztertuak izan daitezela, azter ditzagula, eta egoera honek gehien zigortzen ditueni solidaritateko erantzuna eman diezaiegula.
- **Arren eta arren eskatzen diegu** Gobernuari eta Erakunde Publikoari, hiritar guztien ongizatea ahalbidetzeko erantzukizun nagusia beraiek dutenez, justiziaren eta moralaren aurkako egoera honi galga jar diezaiotela. Hau baita egoera: batzuek oparotasun guri-gurian igeri dagiten bitartean, besteak miserian itotzear daudela. **Arren eta arren eskatzen diegu** baita ere, guztientzat biziera duina ahalbidetuko duten neurri eta ekimen zehatzei lehentasuna eman diezaietela.
- **Arren eta arren eskatzen diegu** baita, Bilboko Udal erantzukizuna dutenei, neurri zehatzak eta azkarrak har ditzatela bere nahiaren kontra inork kale gorrian lo egin behar ez dezan. Hori gertatzen baita orain. **Arren eta arren eskatzen diegu**, mediorik ez duen pertsona orori gutxienez egunean bi bider jateko posibilitatea errazteko. Orain ez baitago erraztasun hori. **Baita ere**, bazterketa pairatzen dutenen aldeko programa eta ekimenei lehentasuna emateko, hain presakakoak ez diren gastuak gerorako lagata.

Ekimen honetara deitu dugun taldeok adierazi nahi dugu, egoera honek gudan sortarazi duen haserre biziak ekarri gaituela gaur Bilboko kaleak ibiltzera. Baina atzo bezala bihar ere, justiziaren kontrakoak eta bere ondorio gaiztoak salatzen jarraituko

dugu gure auzo eta herrietan; ahulengana eta baztertuengana maitekiro eta solidario hurbiltzen jarraituko dugun bezala. Ea, haiekin batera, guztientzat posibilitate berriak eskainiko dituen mundu zuzenagoa eraikitzen dugun.

Bilbo, 2009ko urriak 11